


AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

¿Nolakoa izango da etorkizuneko Legazpi?
¿Zer zehazten du Legazpiko **Hiri-Ordenazioko Plan Orokor** berriak?



Horretarako bildu gara gaur hemen Agenda 21eko Foroarekin: galdera horiei erantzuteko eta Legazpiko Hiri-Ordenazioko Plan Orokor berriaren dokumentua eta bertan jasotako edukia gertutik ezagutzeko.

Lehenengo saio honetan, aipatu Planak 8-10 urteko epearen barruan arlo desberdinetarako (etxebizitza, mugikortasuna, espazio libreak, auzoak,...) aurreikusi dituen **jarduketan zehaztasunak ezagutuko ditugu**. Saio honek jarraipena izango du **bigarren tailer** batekin (abenduarien 14an bilduko gara berriro) eta bigarren saio horretan, dokumentua behin betiko onartua izan aurretik aztertu beharko liratekeen **proposamenak eta iradokizunak** zehazten saiatuko gara.

Azken finean, dagoeneko **ongi landuta dagoen dokumentua guztion artean hobetzea** da helburua. Dokumentu hori azkeneko bi urteotan landu dute hainbat pertsonak eta erakundek eta datozen urteetan Legazpi nolakoa izango den zehazten du eta horretarako oinarriak ezartzen ditu.

Beraz, aldeztu aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu gure udalerraren etorkizuneko irudia ezagutzeko eta hobetzeko interesa azaldu duzuen guztioi





AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Hemen bildu gara...

45-50 pertsona inguru (arduradun politikoak, teknikariak eta Legazpiko bizilagunak). Horiez gain, Plan Orokorra egin duen talde teknikoaren izenean Santi Peñalba jaunak hartu du parte bileran eta bera izan da Planaren osagai eta ezaugarri azpimarragarrienak azaldu dizkiguna. Berarekin batera hemen izan dugu ere Carmen Segurola taldekidea. Azkenik, Prometea SC enpresako Itziarrek eta Zorionek bilera bukaeran galderak egiteko tarte dinamizatu dute.

Izena	Izena	Izena
• German Gereño	• Montse Vallejo	• Juan Carlos Altzelai
• Jose Mari Gurrutxaga	• Eva Lasa	• Javier Iraeta
• Sorkunde Zubia	• Jose Ramon Urzelai	• Maribel Ugarte
• M ^a Cruz Menderobledo	• M ^a Cruz Apaolaza	• Eugenio Gil
• Jesus Nuñez	• Jose Luis Cid	• Juncal Fernandez
• Martin Gonzalez	• Josetxo Dorronsoro	• Jose Ignacio Gil
• Joxan Auzmendi	• Jose Julian Perez	• Jose Arizkorreta
• Floren Gutierrez	• Elena Urzelai	• Marivi Zabaleta
• Pedro Rodriguez	• Juan Manuel Apaolaza	• Jose Luis Zabaleta
• Juan Jose Losada	• Manuel Salvador	• Juan Carlos Agirre
• Iñaki Olaizola	• Jesus Esteban Ruiz	• Inma Hernandez
• Agustin Beloki	• Josefa Makibar	• Juan Ramon Larrañaga
• Damian Kortabarria	• Vicente Garmendia	
• Iñigo Urrutia	• Juan Miguel Urrutia	

Oharra: barkatu transkripzio-akatsak, edo bileran parte hartu eta bere izena hemen azaltzea ahaztu bazaigu.

Talde jendetsua gaurkoa, Hiri-Ordenazioko Plan Orokor berriak eta, beraz, Legazpiren etorkizunak, interesa piztu duela adierazten duena

Legazpiko Hiri-Ordenazioko Plan Orokor berria gertutik ezagutzeko.

Lurzoruaren Lege berriak diotenaren arabera, dokumentuak izen berria hartzen du (orain arte Arau Subsidiarioak izan dira eta oraindik indarrean daude 2000. urtekoak): **Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra**. Bi urteko lana dago dokumentu horren atzean eta bertan elkarrekin lan egin dute pertsona-talde garrantzitsuak (politikariak eta teknikariak) eta erakunde desberdinek; horien guztion buru Legazpiko Udala izan da.

● Une honetan zein egoeran dago dokumentua?

Esan dugun legez, eta dokumentua prestatzen bi urte eman eta gero, joan den azaroaren 29an Legazpiko Udalak hasierako onarpena eman zion dokumentuari aho batez. Beraz, orain dokumentua jendaurrean ageria egoteko epean gaude (epe hori urtarrilaren erdialdean bukatuko da; izan ere, jendaurrean egoteko epea Plan Orokorra Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratuko den egunetik kontatzen hasiko da eta hilabetekoa izango da). Ondoren, dokumentua behin betiko onartu aurretik, jasotako proposamenak, alegazioak,... hartu beharko dira kontutan. Bestetik, dokumentua behin betikoa onartua izan dadin, ezinbestekoa izango da Eusko Jaurlaritzak egingo duen txostena aldekoa izatea.



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

● **Zein irizpideen arabera egin da Udal Plan berria? Hona hemen argibide batzuk:**

Aurreko Arau Subsidiarioak berriak ziren arren, Legazpiko Udalak haiek berrikustea erabaki zuen, herriaren errealitatea eta eszenatokia aldatu egin direlako; bestetik, aurreko planean ez ziren iraunkortasunaren irizpideak aurreikusten.

Horregatik, dokumentu berria prestatzeko eta idazteko, hainbat irizpide ezarri ziren eta horiek azkeneko emaitza baldintzatu dute; Santik irizpide horiek azaldu dizkigu eta hona hemen hainbat argibide¹:

- Legazpiren kokapena hartu da kontutan (inguruak, baliabideak...); halaber, udalerrirako proposamenak zehazteko orduan **lurraldearen antolamendua** (ordenazioa) hartu da aintzat (gertu dauden udalerriak eta udalaz gaindiko eta arloko elementuak).
- **Lurraren erabilera** txikiagotzea bermatu da eta, era berean, Legazpin antzeman diren beharrak asetzea bermatu nahi izan da (etxebizitzak, ekipamenduak, jarduera ekonomikoak...).
- Egungo hiri-sistemaren barruan hirigintzako jarduketak lehenetsi dira (bukatu gabe zeuden areak errematatuz, dagoeneko finkatuta dauden unitateak ahal den neurrian hobetuz, ...), eta, era berean, inguruko jarduketei jarraipena emango zaie, modu horretan, **udalerririk trinkoa** (eta ez barreiatua) bultzatuz.
- Plan Orokorra egitean eta hura gauzatzeko eta burutzeko prozesuan aintzat hartu dira, **herritarren parte-hartzea eta ingurumenarekiko irizpideak sartzea**.
- **Demografia**: biztanle-kopurua egonkortzeko helburua ezarri da (eta, agian, igoera txiki bat aurreikus daiteke biztanle-kopuruan).
- Beharretara egokituko den etxebizitzaren eskaintza bultzatuko da eta, horien artean, babeseko etxebizitzaren (babeseakoak edo tasatutakoak) portzentaia nabaria izatea aurreikusi da; horrek, hiri-lurraren barneko eremuak (hirigunea) eraberritzea lehenetsiko du (herri inguruko lurak erabili aurretik).
- **Jarduera ekonomikoak garatzeko lurzorua** sustatuko da eta lurzoru hori ongi konektatuta egongo da bizitegi eremuekin, herriko sarbideekin eta ondoko udalerriekin (modu horretan, garraio iraunkorragoa bultzatuko da eta ibilgailu pribatuaren erabilera gaitzetsiko da. Halaber, hirigunean trafikoa gutxitzea ahalbidetuko da).
- **Berdegunak eta parkeak** garatuko dira (sistema orokor gisa); eremu horiek ongi banatuko dira udalerrian eta jarduketa txikiagoekin osatuko dira (sistema lokala), plaza eta lorategi berriak sortuz.
- Udalerrian **ekipamenduen eta hornikuntza publikoen kokapenaren aniztasuna** sustatuko da (modu horretan, auzo desberdinen egoera orekatu nahi da), egon daitezkeen proposamen berriez gain.
- **Garraio iraunkorragoa** lehenetsiko da. Horretarako, garraio publikoa sustatuko da: autobusa ibilbide luzeetarako eta oinezkoentzako eta bizikletarientzako bideak ibilbide motzetarako. Eta guzti hori, udalaz gaindiko azpiegiturekin loturak izatea bermatuko duen bide-sistema batean oinarrituko da; sare orekatua lortu nahi da, puntu garrantzitsuenek hirigunearekin lotura izan dezaten.
- **Zerbitzuen azpiegiturak** hobetuko dira, batik bat ur-hornidura (Plan Orokorren garapenetik sortuko diren betebeharrak aurreikusiz).
- Finkatutakotik abiatuta, auzoen egoera eta hornikuntza hobetuko da (eta "lurzoru berria" erabiltzea bultzatu gabe).
- Udalaz gaindiko planarekin bat etorritik, hirigintzarako gai ez den lurzoruan **balio handiko eremuak babestuko dira** eta horien balioa bultzatuko da.

¹ Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, Plan Orokorren Memoriaren laburpen-agiria kontsulta daiteke, Legazpiko Udalaren web orrian: www.legazpiko-udala.info



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Plan Orokorra egiteko prozesuarekin batera ingurumenaren ebaluazioa garatzeko prozesua burutu da eta esan beharra dago ez direla ingurumenarekiko inpaktu kritikoak antzeman (Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen eta gaur hemen aurkeztu den dokumentuari erantsi zaion txostenean zehaztutakoak izan ezik).

Dokumentuari, bestalde, **bideragarritasun azterketa** bat erantsi zaio eta azterketa horrek plana 8-10 urteko epean egingo dela bermatzen du.

Azkenik, Lurzoruaren Lege berriak dioenaren arabera, Legazpiko Udalak Planeko Aholku Batzordea eratu du eta haren Araudia egin du.

● Zehatzago, eta eremu eremu, zer da Planak proposatzen duena?

Santik Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra eremu desberdinetarako aurrekusi dituen proposamen zehatzak azaldu ditu: etxebizitza, jarduera ekonomikoak, auzoak, hornikuntzak ea ekipamenduak,... Azaldutakoa bertaratutako hainbat kidek egin dituzten galderei emandako erantzunekin osatu du Santik. Horiek ere biltzen saiatu gara eta hona hemen atalez atal:

Landa-lurra

i

Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Legazpik, gaur egun, balio ekologiko handiko lurralde gisa dago sailkatuta. Lur hori balio handiko eremua da eta babestuta dago Erabilera eta Kudeaketa arautzeko Plan batean (Aizkorriko Parke Naturalarekin lotuta). Horrela, Legazpi Aizkorriko parke naturaleko "sarbide" gisa hartu denez, **Brinkola-Udanan aisiarako eremu** bat ezartzea aurrekusi da. Proposamen hori garatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Plan Berezi bat egitea.
- Planak **Gorostiaga** izeneko eremua babestea aurrekusi du, naturaren ikuspegitik balio handiko eremua delako.
- **Baserri**ei dagokienez, udalerrian asko ez badira ere, dokumentuak haiek birgaitzeko, zaintzeko,... araudi berezi bat egitea aurrekusi du.
- Plan Orokorra **gorde egin behar diren eraikinen katalogo-zerrenda** bat du.
- Halaber, Legazpiko **mendien baso-kudeaketaren** gaineko aholkuak jaso ditu Planak (egurra ekoizteko zuhaitz-mota ugari dagoelako).
- Plan berriak lurzoruaren %8 gutxiago kontsumitzen du (aurreko Arau Subsidiarioekin alderatuta). **Mantxola** izeneko eremua deskalifikatu egiten da.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Etxebizitza

i

Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Biztanleriaren portaera aintzat hartuz, Planak gutxi gorabehera 1000 etxebizitza **eskaintzea** proposatu du; horietako 500 baino gehiago (%54) babes ofizialeko etxebizitzak edo tasatutako etxebizitzak izango dira (lege berriak dioena betez).
- Aurreko Arau Subsidiarioek adosatutako etxebizitza-kopuru handia aurreikusten zuten eta, aldiz, oraingo Planak lekuaren arabera altuera desberdina izango duten **etxe-multzoak** lehenetsi ditu.
- Plan berriak, arrazoi desberdinak direla medio, gutxi gorabehera 60 **etxebizitza botatzea** aurreikusi du (eremu hauetan daude kokatuta etxe horiek: Bikuña txiki, Zaldu, Urtatzola, Pisuzahar eta Azpikoetxe).



Zalantza edo galderaren bat?

- **Hutsik dauden zenbat etxebizitza** daude Legazpin? Arauak idatzi dituen taldeak eta Juan Ramon alkateak herrian hutsik dauden etxebizitzen kopurua zehaztea zaila dela adierazi dute; horrela hainbat herritar Legazpin bizi arren, kostaldeko herrietan bigarren etxebizitza erosita dute eta, arrazoi fiskalak direla medio, bertan daude erroldatuta; bestetik, eraikitzen ari diren etxebizitzak hutsik dauden etxebizitzak balira bezala ageri dira; ... eta abar. Zailtasun horiek kontutan hartuz, Plan Orokorrak hutsik dauden etxebizitzen portzentaia %13,5 dela zehaztu du (benetako portzentaia, beraz, txikiagoa izango da). Juan Ramon Larrañaga jaunak joan den 2005ean udaletxean egin zen azterketak hutsik zeuden etxebizitzak 20 zirela eman zuela adierazi du. Horrezaz gain, momentuz hutsik dauden etxebizitzak kontrolatzea eta gutxiago egotea ahalbidetzea (adibidez horiei zerga altuagoak aplikatuz) zaila dela zehaztu du, arazo juridikoak daudelako.
- **Azpikoetxe**, bota egingo al da? Bai, erreka berreskuratu egingo delako eta ubidea bertatik pasatzen delako. Legeak eta, beraz, Planak dioenaren arabera, bertako jabeek beste etxebizitza bat eskaini behar zaie eta arazo horri jarduketara gauzatuko denean emango zaio irtenbidea.

Jarduera ekonomikoak

i

Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- **Industria-garapen berri guztiak** udalerraren iparraldean aurreikusi dira (hegoaldean dagoen Olaberria izan ezik). Modu horretan, udalerrian barruko trafikoa eragotzi nahi da eta, era berean, Urretxu-Legazpi ardatza bultzatu nahi da. Lau dira, oro har, garatuko diren areak: Olaetxe eta Zaldu (area osatzeko eta eraberritzeko jarduketak aurreikusi dira), eta Lekuona eta Elbarrena (berriak sortuko dira).
- **Industrialde berriak hirigunetik gertu** kokatuko dira, herritarrak bertaraino oinez joateko aukera izan dezaten eta, modu horretan, ibilgailuak gutxiago erabil dezaten.
- Planteamendu horrek, gainera, **eskualde mailako estrategiari** erantzun nahi dio, eskualdean epe motz eta ertainera Legazpin industria garatzea aurreikusi baitzen. Horrela, azpimarratzekoa da hainbat enpresek lantegiak hemen jartzeko interesa agertu dutela, horien artean hainbat kooperatiba.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna:
2006/12/12

Ordua eta iraupena:
18:00, 2 ordu


Lekua:
Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea

Mugikortasuna

i

Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Ondoko planoetan jasota geratzen dira errepideen Sistema Orokorra eta oinezkoentzako eta bizikletarientzako proposatutako bideak:





AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Mugikortasuna

i

Plan Orokorren oinarriko proposamenak:

- Legazpiko bide-sarea **hiru mailatan** planteatu da: **Sistema orokorra** (gorriz lehenengo planoan) hirigunean dagoen eta hirigunera sartzen den trafikoa bideratuko duena; **A Sistema lokala** (urdinez lehenengo planoan), hiri barruan trafikoa banatuko duena; eta **B Sistema lokala** (berdez lehenengo planoan), Legazpiko goiko auzoetara iristea errazteko.
- Bide berrietan, ibilgailuentzako **galtzada** ezartzeaz gain, **bizikletentzako bidea** eta oinezkoentzako **espaloï zabalak** aurreikusi dira (urdinez bigarren planoan, Urretxura doan bidegorria izan ezik); gainerako sistema lokalean, eta oinezkoen eta bizikleten pasabidea errazteko asmoarekin, ahal denean espaloïak zabaltzea eta norabide bakarra ezartzea proposatu da. Proposamen hori Udalak zehaztu beharko du jarduketa hori burutzera doanean.
- Egin den proposamenarekin kale zehatzak **oinezkoentzako kaleak** ezartzeko aukera irekitzen da (beti ere, garajeetako sarbidea edo zama-lanetarako aukera bermatuz). Horietako bat Kale Nagusia izan daiteke.
- Aparkalekuei** dagokienez, txandaka aparkatu ahal izateko udaletxeko plazaren lur azpian daudenekin nahiko dela uste da. Bizilagunentzako, Planak hainbat auzotan dauden hutsuneak betetzea aurreikusi du. Adibidez, Urtatza auzoan (ur-gordailua kendu eta aparkalekua jartzea aurreikusi da), paper-fabrikaren inguruan, Bikuña jauregiaren inguruan, Kale Nagusiaren atzealdean,... Horiei guztiei sustapen berrietan sortuko diren plazak gehituko zaizkie.



Zalantza edo galderaren bat?

- Zergatik baztertu zen hasierako Plan Orokorrean aurreikusi zen bidea (egungo bidearen parean zihoana)? Eta zergatik proposatu da goiko auzoetara doan bidea? Hasieran proposatutako bidea talde teknikoak proposatu zuen (egungo bidearen alternatiba izateko asmoarekin edo haren edukiera bikoizteko asmoarekin); baina, planteatu zenean Foroak aho batez esan zuen ezetz. Ondoren, zonaldean dagoen trafikoa eta bertatik igaro den ibilgailu-kopurua aztertu da eta ibilgailuen gehiengoa goiko auzoetara doala antzeman da; horregatik, gaur aurkeztu den dokumentuan ageri den proposamena egitea pentsatu zen.
- Bidegorria**, noraino joango da? Iparraldean industrialderaino; hegoaldean, hirigunean erreka-errekaren paretik joango da Bikuña txikiraino (erreka hobetzeko jarduketak aurreikusten dira hemen) eta bidegorria Brinkola eta Telleriarte auzoetaraino iritsiko da.
- Saturnino Telleria kalea**, nola geratuko da? Hasieran behintzat berdin geratuko da, txaleten ondoko espaloïen zabalera hobetuz.
- Telleriartetik Brinkolara doan bidegorria**, nondik doa? Egungo bidetik (erreka-errekaren parean doan bidea, bertan ez dagoelako trafiko handirik); horretarako, zenbait tokitan bidea zabaltzea aurreikusi da. Bide horretan arazoak sor daitezke oinezkoen, bizikletarien eta autoen artean eta horren aurrean (bidea zabaltzea zaila denez) ibilgailuak goiko bidea erabiltzera behar daitezkeela proposatu da (adibidez, jaiegunetan).
- Mirandaolatik Telleriartera doan bidegorria, nola geratuko da?** Berdin, orain doan bidetik joango da baina zorua hobetuko da eta aldapa gutxituko da (alkateak azaldu duenez, jarduketa horiek 2007ko aurrekontuan sartu dira).

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Espazio libreak, berdeguneak eta parkeak

i

Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Dimensio handiko lau espazio libre sortuko dira (sistema orokorra): Telleriarten (turbinaren ondoan), Mirandaolan, Urtatzen eta txaleten erdigunean; lau eremu horiek, guztira, 90.000 m² batzen dute (biztanleko 10 m², araudiak ezarritako gutxienekoaren bikoitza).
- **Jarduketa txikiak** (sistema lokala), adibidez: paper-fabrikaren inguruan plaza bat egitea, San Martin-Goialden parke bat...



Zalantza edo galderaren bat?

- **Txaleten erdigunean** nolako parkea proposatu da? Udalaren jabegoko parke publikoa izatea proposatu da. Txaletek lorategia izango dute baina txikiagoa. Etorkizunerako planteatu den helburuetako bat Patricio Echeverria jaunaren txaleta ekipamendu publiko bilakatzea da.
- Urtatzolako **baratzak** kentzeko egin den proposamena aintzat hartuz, aurreikusi al da baratzak beste leku batean jartzeko aukera izatea? Plan Orokorra baratza berriak sortzeko ideia jaso du baina ez da leku zehatz bat proposatu horretarako; aukera desberdinak aztertzen ari dira, hala nola Olaetxe errekatxoaren atzealdea. Baratza horiek ongi garatzeko ezinbestekoa da kudeaketa-eredu bat ongi zehaztea (horretarako arrakasta izan duten esperientziak aztertu dira, Eskoriatzakoa adibidez)

Komunitateko ekipamenduak

i

Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Legazpik ekipamendu ona du eta, ondorioz, Planak ekipamendu hori **udalerriko leku desberdinetara** zabaltzea aurreikusi du, auzoak orekatuz (batik bat goiko auzoak lehenetsiz). Horretarako, jarduketa desberdinak aurreikusi dira Urtatza-Urtatzola auzoan eta San Martin auzoan.
- Proiektu zehatza bat ere proposatu da: paper-fabrikaren eraikinean **lanaren oroimenaren Museoa** kokatzea. Ekipamendu horrek jarduera berriak bultzatzea ditzake inguruetan eta Nafarroa kalea indar dezake.
- Antzinako paper-fabrikaren inguruan **Urola ibaia berreskuratuko da** (Bellota enpresaraino behintzat), eta ibaiertzetan pasealekua egokituko da....



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Hiriko zerbitzuen azpiegiturak



Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Jarduketa nagusienek uraren hornidurarekin dute zerikusia; jarduketa horiek Gipuzkoako Urak enpresarekin eta arlo horretan eskumenak dituzten beste erakunderekin elkarlanean egin dira; **bi ur-biltegi** berri egitea aurreikusi da (Urtatza-zaharren eta San Martin auzoan) garapen berriek ekarriko dituzten betebeharrak bermatzeko. Ur-biltegi horiek goialdean kokatuko direnez, ur-presioa hobetu egingo da kontsumo-puntuetan.



Zalantza edo galderaren bat?

- Nondik eramango da ura** bi ur-biltegi berrietara? Hasiera batean Barrendiolatik; hala ere, udan edo ur eskasia dagoenean, Ibaiederreko urtegitik hartu ahal izango da ura, urtegi horrek lotura baitu Barrendiolako urtegiarekin.
- Urtatzako urtegia**, horrela geratuko da? Bai, jabego pribatukoa delako.

Auzoak



Plan Orokorren oinarrizko proposamenak:

- Planak jarduketa desberdinak aurreikusi ditu **Telleriarte auzoan** (sarbideak hobetzea), **Brinkola auzoan** (pilotaleku estalia edo erabilera anitzeko espazioa egitea...) eta **Guriditegi auzoan** (urbanizazioa hobetzea); horretarako, dagoeneko finkatuta dagoen lur-eremua erabiltzea lehenetsiko da "erabili gabeko lurra" hartu gabe.
- Modu berean **auzoak** (goialdekoak batik bat) hobetzeko jarduketak aurreikusi dira, hala nola Arantzazu (sarbideak, ekipamenduak,...), Urtatza (Urtatzola erreka berreskuratzea, lurpeko aparkalekua izango duen plaza egitea...).



Zalantza edo galderaren bat?

- Planak auzoetako beharrak bete eta hobetu ordez, jarduketa berriak proposatzen ditu, zergatik hori? Santik bi ardatz horiek orekatzen saiatu direla adierazi du.



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21 eta Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra

Eguna: 2006/12/12	Ordua eta iraupena: 18:00, 2 ordu	Lekua: Udalbatza Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------------------------	---

Bigarren bilera bat geratzen zaigu, guztion artean Plan Orokorra hobetzeko asmoarekin ...

Hasieran esan dugun legez, bigarren saio hori **datorren abenduaren 14an izango da, arratsaldeko 18:00etan Legazpiko udaletxean**. Zertarako bilduko gara? Gaur hemen sakonago ezagutu dugun Plan Orokorra behin betiko onartua izan aurretik, plan hori hobetzeko proposamenak, alegazioak, iradokizunak,... elkarrekin plazaratzea eta eztabaidatzea proposatzen dizuegu.



Erronka honek guztion ideiak merezi dituela uste dugunez, zain izango gaituzue!
Aldez aurretik, **esker mila!**